



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2025-08-19koa

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Uztaileko bigarren hamabostaldia, temperaturari dagokionez, eta hilaren 16an eta 17an izan ezik, beroak izan baitziren, nahiko freskoa izan zen uztailea izaten denerako. Maximoak egun bakar batean gainditu zituzten 30 °C eta batez besteko temperaturak 20 °C inguru izan ziren. Eskualdeko prezipitazioei dagokienez, uztailea hezetzat jo daiteke erdialdean eta mendebaldean, baina uztailaren 11n eta 12an izandako ekaitzen ondorioz bakarrik; izan ere, hileko bigarren hamabostaldian ez da prezipitaziorik izan, eta, horren ondorioz, ekialdean hilabete lehor batez hitz egin behar dugu. Bestalde, abuztuaren aldaketa handia izan da tenperaturen joeran, bero egun oso biziekin eta abuztuaren 4an hasi eta 17ra arte iraun duen bero boladarekin. Aldi horretan, tenperatura maximoak 35° C-tik gorakoak izan dira egun askotan, eta 40 °C-ra iritsi dira nahikoetan. Eguneko batez bestekoak 30 °C ingurukoak izan dira, eta gau askotan ez du freskatu. Horri gehitu behar zaio ez duela bat ere euririk egin, eta horrek 2022ko eta 2023ko muturreko bero gertakariekin konpara daitekeen egoera bat eragin du, baina are iraupen luzeagokoa ere.

Laborearen egoera fenologiko orokorra, uztaileko bigarren hamabostaldian, kolore aldaketaren hasiera -M1- zen, mordo itxiarekin -L-, ohikoa baino 8-10 egun lehenago. Mahatsondoa uztailaren 11ko ekaitzaren kalteek areagotutako gorrinak eragindako eraso orokorretik berreskuratzen ari zen gehienbat, eta kasu askotan 10 baino gehiago ziren tratamenduekin jarraitzen zen. Kotarik altuenetako mahastiak eta eskualdeko ekialdeko muturrekoak, gorrin izurriteak eta txingorrak gutxien kaltetu dituztenak, osasun egoera oso onean daude, eta, era berean, onddoa neurri handiagoan edo txikiagoan menperatzea lortu duten gainerako eremuetako mahasti asko ere bai. Gaur egun, egoera orokortuena kolore aldaketa bete da -M2-, duela bi aste baino egoera fenologiko aurreratuagoarekin, azken egunetako bero boladaren ondorioz. Bero horrek estres hidriko handia eragin die landareei, eta ondorioak ikusteko daude, batez ere lurzoru arinetan, sakonera txikikoetan eta ureztatu gabekoetan dauden mahastietan. Beroaren eta giro lehorraren alderdi positiboa izan da onddoek beren erasoak arindu dituztela, baina, aldiz, landareen metabolismoa

blokeatu liteke. Kolore aldaketa betearen osteko fase batean landareak temperatura altuen aurrean sentikortasun txikiagoa badu ere, datozen egunetan ikusi ahal izango da bero bolada horrek zenbateraino eragin dion eta gehiegizko eguzkiak kaltetutako fruiturik ba ote dagoen, batez ere barietate sentikorretakoak, hala nola gracionokoak.

Abuztuko hurrengo egunei begira, temperatura freskoagoen eta, agian, prezipitazioaren baten aurreikuspena positiboa da landareen estres hidrikoa arintzeko eta fruituaren pisua eta bolumena handituz ondo heltzeko.

Horrela, mahats bilketa azkar eta ekoizpena nabarmen murriztuta egitea aurreikusten da, Kontseilu Arautzaileak kanpaina honetan udalerrri bakoitzerako ezarritako gehieneko errendimenduekin aurreratu duenez.

AIARAKO KUADRILLA (ARABAKO TXAKOLINA)

Arabako Txakolina jatorri deituraren eskualdean, uztaileko bigarren hamabostaldian temperatura freskoak eta haize leun eta freskoak izan ziren, batez ere iparraldetik etorriak; prezipitazioei dagokienez, urriak izan ziren, 10 mm baino gutxiago. Abuztuan, bero boladak Aiaraldean ere izan du eragina. Eguneko temperatura maximoak 40 °C-tik gorakoak izan dira, eguneko batez bestekoak altuak, gau freskorik gabeak eta batez ere hego-hego/mendebaldeko haizeekin. Horiek guztiek estres hidriko eta termiko ezohikoa eragin diete mahastiei, une sentikor batean, hau da, kolore aldaketan. Ohikoarekin bat zetorren heltzea aurreikusten bazen, temperatura altu horien ondorioz atzeratu egingo da, landareetan eragin duen geldialdi fisiologikoagatik, ez baitaude hain muturreko beroak izatera ohituta. Era berean, kanpainaren hasieran, eta osasun fungikoari begira, temperatura ona izan bazen ere, 14 eguneko bero bolada horren gehiegizko iraupenak ohikoak baino eguzki erradiazio askoz handiagoak eragin dizkie txakolin mahastiei, eta kalteak eragin dizkie fruituetan, batez ere esposizio handieneko eta mendebaldera orientatutako mahats mordoetan.

Abuztuaren 13an izan ziren euriak, temperatura altuekin batera, ez dira esanguratsuak izan zona horretako gaixotasun fungiko endemikoetan ohikoa dena baino arreta handiagoa jartzeko, bereziki gorrina, eta, beraz, ez da eragin handirik aurreikusten, hurrengo egunetan hezetasun erlatiboa txikia izan baitzen.

Mahats mordoak, gehienbat, kolore aldaketaren hasieran daude -M1-, eta, ziurrenik, garapena geldiarazi duen beroaldiaren ondorioz heltzea atzeratuko da. Kanpaina honetarako, gorrinak eragindako mahastien kasu isolatuetan ekoizpen murrizketak aurreikusten diren arren, ekoizpen aurreikuspen baikorrek jarraitzen dute, meteorologian begia jarrita heltzeraino, azken errendimendua zehazteko, eremu horretan ona izango dela aurreikusten baita.

Abuztuaren erdialdeko azken txosten honekin 2025eko mahastizaintza kanpainaren jarraipena amaitzen dugu. Irailaren 1etik aurrera, urtero bezala, mahatsaren HELTZEAREN jarraipena egingo da bi zonetan.

Guardia, 2025eko abuztuaren 19a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA**